

udaltop

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK



IZENBURUA:

Jardunaldien ondorioak eta
proposamen batzuk

EGILEA:

Iratxe Aranburu eta Maite Etxaniz

DATA:

2016/04/21



Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
2. Eskola kirola izan al daiteke euskarazko esparru bat?.....	3
3. Posible al da gaur egun eskola kirola euskaraz egitea?.....	4
4. Zer egin genezake orduan?.....	5
5. Proposamenak.....	7



1. Sarrera

Txosten honetan Jardunaldiaren ondorioak eta proposamenak bilduko ditugu. Bi egunetan zehar jasotako ideia nagusienen bilketa egingo dugu eta saiatuko gara galdera nagusiarri erantzuteko proposamenak luzatzen: **nork eta zer egin genezake gazteen euskarazko kirol jarduna ziurtatzeko?**

Jardunaldien nondik norakoa ondo baino hobeto kokatu du Jokin Larrañagak :

“8-16 urte bitarteko gaztetxoari eskolan euskara ikasi bitartean euskaraz bizi dadin, esparruak euskaraz eskaintzea zor diogu, bestela ez da elebidun oso bihurtuko”

Jokin Larrañaga (Arabako Foru Aldundia)

Asko dira euskara eskolan ikasi duten haur eta gaztetxoak, eskolak funtzio hori bete behar zuela erabaki zelako adostasun handi baten bidez. Baina badakigu eskolan euskara ikastea ez dela nahikoa euskaldun oso izateko, eta euskara egunerokotasunean erabiltzeko.

Zer egin genezake horren aurrean? Hasteko, gure haur eta gazteei euskara normaltasunez erabiltzeko esparruak eskaini.

2. eskola-kirola izan al daiteke euskarazko esparru bat?

Jardunaldietan entzun dugunaren arabera baietz esango genuke, zalantzarik gabe:

“Kirolak ahalbidetzen ditu pertsonen arteko harremanak eta, jakina, hizkuntza beste egoera eta beste erregistro batean erabiltzeko aukera ematen du.”

Ruben Goñi (Nafarroako Gobernua)

“Hizkuntza erabiliaz menperatzen da. (...) Guztiz garrantzitsua litzateke haur eta gazteek euskara ez lotzea soilik hezkuntza formalarekin (...) beren aisialditik gertuago dauden giro informal eta lasaiagotan euskararekin interakzioan jarraitzea, jolas testuinguruak ere euskararen erabiltzenarekin lotzeko.”

Luis Mari Zulaika (EHU)



Eusko Jaurlaritzak EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANEAN ere horrela dio:

“Eskolak herritar asko elebidundu badezake ere, eskolari ezin zaio eskatu erabileran eragin handia duten jarduera ugari bere gain har ditzala. Horregatik da garrantzizkoa eskolaz kanpoko jardueretan –eta bereziki haur eta gazteei zuzentzen zaizkienetan–euskara erabiltzeko aukera zabalak eskaintzea, kirol federazio eta bestelako elkarteekiko lankidetzaren bitartez. “


3. Posible al da gaur egun eskola kirola euskaraz egitea?

Haur eta gaztetxoek gaitasunari begiratzen badiogu, erantzuna baiezkoa da.

5-14 urte bitarteko haur eta gaztetxoek artean euskaldunak eta euskaldun hartzaileak

- Euskal Autonomia Erkidegoan %95a dira.
- Nafarroako eremu euskaldunean berriz elebidunak %91a

Beraz, haur eta gazteen gaitasunaren aldetik ez dago inolako arazorik.



Eta eskola kirolean parte hartzen duten gainontzeko eragileak prest al daude?

Erakundeak: Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak, Udalak

Eskolak



Klubak

Federazioak

Gurasoak

Begiraleak

Entrenatzaileak

Arbitroak

...

Erakundeek eta eskolek egon beharko lukete, noski, baina gainontzeko eragileen gaitasunari buruzko daturik ez daukagu. Halere, eskola-kirola erakundeek bultzatu, antolatu eta neurri handi batean finantzatzen dutenez, posible izango al litzateke jarduera aurrera eramateko hizkuntza baldintzak ezartzea?

Indarrean dagoen araudiak bide ematen al du horretarako?

Dorleta Ugaldek azaldu digu eskola kirolari buruz daukagun araudia. Eta esan digu, euskarak ez duela apenas lekurik araudi orokorrean.

1. Euskadiko Kirolaren Legea (1998)
2. EAEko Eskola Kirolari buruzko Dekretua (2008)
3. Eskola Kiroleko lehiaketan diziplina araubideari buruzko Dekretua (2013)
4. Euskal Autonomia Erkidegoan kirol arloko lanbideetan sartzeari buruzko lege proiektua

Euskadiko Kirolaren legeari jarraiki, Foru Aldundiei dagokie eskola kirolaren arauak garatzea eta udal administrazioarekin lankidetzan gauzatzea. Hori guztia hitzarmen eta diru-laguntza bidez antolatzen dute oro har.

Udalei, aldiz, foru organoek onartutako eskola-kiroleko programak bultzatzea dagokie, haiekin koordinatuta jokatzuz, eta herriko ikastetxe zein kirol elkarteekin elkarlanean. Hitzarmenak eta diru-laguntza lerroak dira erabilitako tresna nagusiak.

Bai Foru Aldundiek, bai udalek, eskola-kirolaren antolaketan hizkuntza kontuan hartzen dute gehienetan, bai hitzarmen, bai diru-laguntza deialdietan... baina horrek ez du beti bermatzen eskola kirola euskaraz egitea, eta horregatik gaude hemen...

4. Zer egin genezake orduan?



1.- Argi dago, eskola kirola euskaraz egiteko **adostasuna** dagoela, haur eta gazteek ahal dutela eta ona dela beraientzat euskaldun oso izaten lagunduko dielako.

Pello Jauregik esan digu:

- Ezin dugula erantzukizun osoa beraiengan jarri.
- Ezin dela norbanakoen borondatearen baitan utzi
- Adostasun batera iritsi behar dela kirola euskararentzat eremu normalizatua izan dadin.
- Eta hori egiteko neurriak hartu behar direla, sozialak, legalak...

Gai honen inguruan adostasun maila handia lortua dagoela esango genuke, 16 urtez beherako eskola-kirola euskaraz egiteko aurkako jarrerarik ez dugu barra-barra aurkituko. Beharbada adostasuna ez da erabatekoa, baina gertu egon gaitezke. Beraz, adostasun maila hori areago-tzea behar-beharrezkoa litzateke.

2.- Ikusi dugu **indarrean dagoen araudian** euskarari leku gutxi eman zaiola. Hori konpontzea da gure hurrengo proposamena. Legealdia bukatzean dagoenean zaila izango da lehendik dau-den legeak berrikusi eta aldatzen hastea, baina gaur egun tramitean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoan kirol arloko lanbideetan sartzeari buruzko lege proiektuan hizkuntza kontuan hartzeko garaiz gaude oraindik.

Lege honen xedea da: kirol-arloko lanbide jakin batzuetan sartzeko eta jarduteko oinarritzko alderdiak antolatzea. Berariaz adieraziko da zeintzuk diren lanbide horiek, lanbide bakoitzaren jardun-eremu funtzional orokorra ezarriko da, eta aditzera emango da lanbide horietan sartzeko zer kualifikazio eskatzen den. Lege honen ondorioetarako, lanbide hauek jotzen dira kirol-arloko berezko lanbidetzat:

- a) Gorputz Hezkuntzako Irakaslea.
- b) Kirol Monitorea.
- c) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Entrenatzailea.
- d) Kirol Zuzendaria.

Legeak zioen azalpenean bertan dio “zeharkako jardute-eremu batean bilakatu behar du jada kirolak; hau da, kirola ez dute sail espezifiko batzuek bakarrik landu behar, gobernuaren ekintza osoak baizik. Izan ere, kirolak eragina du osasunean, hezkuntzan, lan-merkatuan, kontsumitzaile eta erabiltzaileengan, ingurune naturalean eta abarretan.”

Guk beste eragin bat gehituko genioke, txosten honen hasieran azaldu duguna, hain zuzen ere: “gure haur eta gazteei euskarazko esparruak eskaintzeko aukera”, “hizkuntza beste egoera eta beste erregistro batean erabiltzeko aukera”, “jolas testuinguruak ere euskararen



erabilpenarekin lotzeko aukera”...

Lege proiektuan lanbideek bete beharreko hizkuntza gaitasuna aipatzen ez bada ere, Gorputz Hezkuntzako Irakaslea eta Kirol zuzendarien lanbideen kasuan aurrez onartuta dauden arauak emango dute hizkuntza gaitasuna ezartzeko aukera. Lehen kasuan lanbide horien jarduna irakaskuntzan beteko delako, eta bigarrenean administrazio publikoen kontratazioaren esku geratuko delako oro har, eta arlo horretan hizkuntza irizpideak ezartzeko aukera ere arautua dago.

Kasu guztietan egokia bada ere, kirol monitore eta entrenatzaileen kasuan berriz, beharrezkoa litzateke hizkuntza gaitasunari leku ematea lege proiektuan.

Euskararen agenda estrategikoan ere hala jasotzen da:

*“Aisialdian eta kirolean euskararen erabilera indartzeak hizkuntzaren ikuspegi ludikoa sendotzen lagunduko luke, batzuetan izan ohi duen kutsu akademiko hutsa gaindituz eta erakargarriagoa eginez; prestigioa ere irabaziko luke gainera esparru aniztasunari esker. Zentzun honetan, **begirale eta entrenatzaile euskaldunak izatea ezinbestekoa da**, eta, beraz, horretarako bide ezberdinak jorratuko ditugu (prestakuntza, materiala, diru-laguntzetako hizkuntza irizpideak...)”*

3.- Foru Aldundiei eskola kirolaren arauak gauzatzea dagokiela ikusi dugu, eta **Udalei** eskola-kiroleko programak bultzatzea, kirol elkarte zein ikastetxeekin elkarlanean.

Eginkizun horiek betetzeko tresna nagusiak hitzarmenak eta diru-laguntzak dira, eta batzuetan hizkuntza irizpideak jasotzen dituzte: jarduera bera euskaraz izateko batzuetan, begirale eta entrenatzaileen hizkuntza gaitasuna ezartzeko besteetan...

Lan handia egin da kasu askotan, baina asko dago egiteko oraindik ere. Jardunaldiotan kudeaketa eredu desberdinak ikusi ditugu. Boluntarioen bidez egindakoak, eskola eta udalen elkarlarenaren bidez, edo udalaren ekimen zuzenaz. Guztiak dira baliagarriak, eta tokian tokiko ezaugarriari erantzuten diete batzuk zein besteek.

Jardunaldi hauetan ikusi eta ikasi dugunaren ondoren esan genezake gabeziarik handiena kirol federazio eta klubetan dagoela, eta guri dagokigun esparruan, batez ere kirol-eskolak baimentzerakoan.

Badirudi, neurri handi batean Udalek eta Foru Aldundiek antolatu eta finantzatutako jarduera batean baldintzak jartzeko zilegitasun osoa dagoela, eta beraz, hizkuntza baldintzak ezartzeko ere bai. Kasu askotan egiten da, baina beste hainbatetan ez. Eta batzuetan irizpideak ezarri arren, horien betekizun maila ziurtatzea ez da erraza izaten.



5. Proposamenak:

1. Erakunde guztiek eskola-kirola euskararentzat eremu normalizatua izateko adostasuna bilatzea, beren eskumenen esparruan eta harremana duten eragileekin elkarlanean.
2. Euskal Autonomia Erkidegoan kirol arloko lanbideetan sartzeari buruzko Lege Proiektua tramitean dagoen bitartean, kirolak euskararen normalkuntzan izan dezakeen eragina kontuan hartu, eta gure haur eta gazteekin lan egingo duten monitore eta entrenatzaileak euskaldunak izateko beharrezko neurriak ezartzea.
3. Foru Aldundi eta Udalek ematen dituzten diru-laguntzetan, sinatzen dituzten hitzarmenetan eta onartzen dituzten baimenetan, eskola-kirola eta kirol-eskolak euskaraz izateko hizkuntza baldintzak ezarri eta betearaztea.
4. Neurriak hartzearekin batera, adostasun zabal horretan parte hartuko duten erakundeek, eskola-kirola euskaraz egiteak dituen onurak gizarteratzeko sustapen lana osatu eta indartzeko konpromisoa hartzea.

udaltop

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK



IZENBURUA:

Jardunaldien ondorioak eta
proposamen batzuk

EGILEA:

Iratxe Aranburu eta Maite Etxaniz

DATA:

2016/04/21



Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
2. Eskola kirola izan al daiteke euskarazko esparru bat?.....	3
3. Posible al da gaur egun eskola kirola euskaraz egitea?.....	4
4. Zer egin genezake orduan?.....	5
5. Proposamenak.....	7



1. Sarrera

Txosten honetan Jardunaldiaren ondorioak eta proposamenak bilduko ditugu. Bi egunetan zehar jasotako ideia nagusien bilketa egingo dugu eta saiatuko gara galdera nagusiar erantzuteko proposamenak luzatzen: **nork eta zer egin genezake gazteen euskarazko kirol jarduna ziurtatzeko?**

Jardunaldien nondik norakoa ondo baino hobeto kokatu du Jokin Larrañagak :

“8-16 urte bitarteko gaztetxoari eskolan euskara ikasi bitartean euskaraz bizi dadin, esparruak euskaraz eskaintzea zor diogu, bestela ez da elebidun oso bihurtuko”

Jokin Larrañaga (Arabako Foru Aldundia)

Asko dira euskara eskolan ikasi duten haur eta gaztetxoak, eskolak funtzio hori bete behar zuela erabaki zelako adostasun handi baten bidez. Baina badakigu eskolan euskara ikastea ez dela nahikoa euskaldun oso izateko, eta euskara egunerokotasunean erabiltzeko.

Zer egin genezake horren aurrean? Hasteko, gure haur eta gazteei euskara normaltasunez erabiltzeko esparruak eskaini.

2. eskola-kirola izan al daiteke euskarazko esparru bat?

Jardunaldietan entzun dugunaren arabera baietz esango genuke, zalantzarik gabe:

“Kirolak ahalbidetzen ditu pertsonen arteko harremanak eta, jakina, hizkuntza beste egoera eta beste erregistro batean erabiltzeko aukera ematen du.”

Ruben Goñi (Nafarroako Gobernua)

“Hizkuntza erabiliaz menperatzen da. (...) Guztiz garrantzitsua litzateke haur eta gazteek euskara ez lotzea soilik hezkuntza formalarekin (...) beren aisialditik gertuago dauden giro informal eta lasaiagotan euskararekin interakzioan jarraitzea, jolas testuinguruak ere euskararen erabiltzenarekin lotzeko.”

Luis Mari Zulaika (EHU)



Eusko Jaurlaritzak EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANEAN ere horrela dio:

“Eskolak herritar asko elebidundu badezake ere, eskolari ezin zaio eskatu erabileran eragin handia duten jarduera ugari bere gain har ditzala. Horregatik da garrantzizkoa eskolaz kanpoko jardueretan –eta bereziki haur eta gazteei zuzentzen zaizkienetan–euskara erabiltzeko aukera zabalak eskaintzea, kirol federazio eta bestelako elkarteekiko lankidetzaren bitartez. “


3. Posible al da gaur egun eskola kirola euskaraz egitea?

Haur eta gaztetxoek gaitasunari begiratzen badiogu, erantzuna baiezkoa da.

5-14 urte bitarteko haur eta gaztetxoek artean euskaldunak eta euskaldun hartzaileak

- Euskal Autonomia Erkidegoan %95a dira.
- Nafarroako eremu euskaldunean berriz elebidunak %91a

Beraz, haur eta gazteen gaitasunaren aldetik ez dago inolako arazorik.



Eta eskola kirolean parte hartzen duten gainontzeko eragileak prest al daude?

Erakundeak: Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak, Udalak

Eskolak



Klubak

Federazioak

Gurasoak

Begiraleak

Entrenatzaileak

Arbitroak

...

Erakundeek eta eskolek egon beharko lukete, noski, baina gainontzeko eragileen gaitasunari buruzko daturik ez daukagu. Halere, eskola-kirola erakundeek bultzatu, antolatu eta neurri handi batean finantzatzen dutenez, posible izango al litzateke jarduera aurrera eramateko hizkuntza baldintzak ezartzea?

Indarrean dagoen araudiak bide ematen al du horretarako?

Dorleta Ugaldek azaldu digu eskola kirolari buruz daukagun araudia. Eta esan digu, euskarak ez duela apenas lekurik araudi orokorrean.

1. Euskadiko Kirolaren Legea (1998)
2. EAEko Eskola Kirolari buruzko Dekretua (2008)
3. Eskola Kiroleko lehiaketan diziplina araubideari buruzko Dekretua (2013)
4. Euskal Autonomia Erkidegoan kirol arloko lanbideetan sartzeari buruzko lege proiektua

Euskadiko Kirolaren legeari jarraiki, Foru Aldundiei dagokie eskola kirolaren arauak garatzea eta udal administrazioarekin lankidetzan gauzatzea. Hori guztia hitzarmen eta diru-laguntza bidez antolatzen dute oro har.

Udalei, aldiz, foru organoek onartutako eskola-kiroleko programak bultzatzea dagokie, haiekin koordinatuta jokatzuz, eta herriko ikastetxe zein kirol elkarteekin elkarlanean. Hitzarmenak eta diru-laguntza lerroak dira erabilitako tresna nagusiak.

Bai Foru Aldundiek, bai udalek, eskola-kirolaren antolaketan hizkuntza kontuan hartzen dute gehienetan, bai hitzarmen, bai diru-laguntza deialdietan... baina horrek ez du beti bermatzen eskola kirola euskaraz egitea, eta horregatik gaude hemen...

4. Zer egin genezake orduan?



1.- Argi dago, eskola kirola euskaraz egiteko **adostasuna** dagoela, haur eta gazteek ahal dutela eta ona dela beraientzat euskaldun oso izaten lagunduko dielako.

Pello Jauregik esan digu:

- Ezin dugula erantzukizun osoa beraiengan jarri.
- Ezin dela norbanakoen borondatearen baitan utzi
- Adostasun batera iritsi behar dela kirola euskararentzat eremu normalizatua izan dadin.
- Eta hori egiteko neurriak hartu behar direla, sozialak, legalak...

Gai honen inguruan adostasun maila handia lortua dagoela esango genuke, 16 urtez beherako eskola-kirola euskaraz egiteko aurkako jarrerarik ez dugu barra-barra aurkituko. Beharbada adostasuna ez da erabatekoa, baina gertu egon gaitezke. Beraz, adostasun maila hori areago-tzea behar-beharrezkoa litzateke.

2.- Ikusi dugu **indarrean dagoen araudian** euskarari leku gutxi eman zaiola. Hori konpontzea da gure hurrengo proposamena. Legealdia bukatzean dagoenean zaila izango da lehendik dau-den legeak berrikusi eta aldatzen hastea, baina gaur egun tramitean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoan kirol arloko lanbideetan sartzeari buruzko lege proiektuan hizkuntza kontuan hartzeko garaiz gaude oraindik.

Lege honen xedea da: kirol-arloko lanbide jakin batzuetan sartzeko eta jarduteko oinarrizko alderdiak antolatzea. Berariaz adieraziko da zeintzuk diren lanbide horiek, lanbide bakoitzaren jardun-eremu funtzional orokorra ezarriko da, eta aditzera emango da lanbide horietan sartzeko zer kualifikazio eskatzen den. Lege honen ondorioetarako, lanbide hauek jotzen dira kirol-arloko berezko lanbidetzat:

- a) Gorputz Hezkuntzako Irakaslea.
- b) Kirol Monitorea.
- c) Dagokion kirol-modalitate edo -diziplinako Entrenatzailea.
- d) Kirol Zuzendaria.

Legeak zioen azalpenean bertan dio “zeharkako jardute-eremu batean bilakatu behar du jada kirolak; hau da, kirola ez dute sail espezifiko batzuek bakarrik landu behar, gobernuaren ekintza osoak baizik. Izan ere, kirolak eragina du osasunean, hezkuntzan, lan-merkatuan, kontsumitzaile eta erabiltzaileengan, ingurune naturalean eta abarretan.”

Guk beste eragin bat gehituko genioke, txosten honen hasieran azaldu duguna, hain zuzen ere: “gure haur eta gazteei euskarazko esparruak eskaintzeko aukera”, “hizkuntza beste egoera eta beste erregistro batean erabiltzeko aukera”, “jolas testuinguruak ere euskararen



erabilpenarekin lotzeko aukera”...

Lege proiektuan lanbideek bete beharreko hizkuntza gaitasuna aipatzen ez bada ere, Gorputz Hezkuntzako Irakaslea eta Kirol zuzendarien lanbideen kasuan aurrez onartuta dauden arauak emango dute hizkuntza gaitasuna ezartzeko aukera. Lehen kasuan lanbide horien jarduna irakaskuntzan beteko delako, eta bigarrenean administrazio publikoen kontratazioaren esku geratuko delako oro har, eta arlo horretan hizkuntza irizpideak ezartzeko aukera ere arautua dago.

Kasu guztietan egokia bada ere, kirol monitore eta entrenatzaileen kasuan berriz, beharrezkoa litzateke hizkuntza gaitasunari leku ematea lege proiektuan.

Euskararen agenda estrategikoan ere hala jasotzen da:

*“Aisialdian eta kirolean euskararen erabilera indartzeak hizkuntzaren ikuspegi ludikoa sendotzen lagunduko luke, batzuetan izan ohi duen kutsu akademiko hutsa gaindituz eta erakargarriagoa eginez; prestigioa ere irabaziko luke gainera esparru aniztasunari esker. Zentzun honetan, **begirale eta entrenatzaile euskaldunak izatea ezinbestekoa da**, eta, beraz, horretarako bide ezberdinak jorratuko ditugu (prestakuntza, materiala, diru-laguntzetako hizkuntza irizpideak...)”*

3.- Foru Aldundiei eskola kirolaren arauak gauzatzea dagokiela ikusi dugu, eta **Udalei** eskola-kiroleko programak bultzatzea, kirol elkarte zein ikastetxeekin elkarlanean.

Eginkizun horiek betetzeko tresna nagusiak hitzarmenak eta diru-laguntzak dira, eta batzuetan hizkuntza irizpideak jasotzen dituzte: jarduera bera euskaraz izateko batzuetan, begirale eta entrenatzaileen hizkuntza gaitasuna ezartzeko besteetan...

Lan handia egin da kasu askotan, baina asko dago egiteko oraindik ere. Jardunaldiotan kudeaketa eredu desberdinak ikusi ditugu. Boluntarioen bidez egindakoak, eskola eta udalen elkarlanaren bidez, edo udalaren ekimen zuzenaz. Guztiak dira baliagarriak, eta tokian tokiko ezaugarriei erantzuten diete batzuk zein besteek.

Jardunaldi hauetan ikusi eta ikasi dugunaren ondoren esan genezake gabeziarik handiena kirol federazio eta klubetan dagoela, eta guri dagokigun esparruan, batez ere kirol-eskolak baimentzerakoan.

Badirudi, neurri handi batean Udalek eta Foru Aldundiek antolatu eta finantzatutako jarduera batean baldintzak jartzeko zilegitasun osoa dagoela, eta beraz, hizkuntza baldintzak ezartzeko ere bai. Kasu askotan egiten da, baina beste hainbatetan ez. Eta batzuetan irizpideak ezarri arren, horien betekizun maila ziurtatzea ez da erraza izaten.



5. Proposamenak:

1. Erakunde guztiek eskola-kirola euskararentzat eremu normalizatua izateko adostasuna bilatzea, beren eskumenen esparruan eta harremana duten eragileekin elkarlanean.
2. Euskal Autonomia Erkidegoan kirol arloko lanbideetan sartzeari buruzko Lege Proiektua tramitean dagoen bitartean, kirolak euskararen normalkuntzan izan dezakeen eragina kontuan hartu, eta gure haur eta gazteekin lan egingo duten monitore eta entrenatzaileak euskaldunak izateko beharrezko neurriak ezartzea.
3. Foru Aldundi eta Udalek ematen dituzten diru-laguntzetan, sinatzen dituzten hitzarmenetan eta onartzen dituzten baimenetan, eskola-kirola eta kirol-eskolak euskaraz izateko hizkuntza baldintzak ezarri eta betearaztea.
4. Neurriak hartzearekin batera, adostasun zabal horretan parte hartuko duten erakundeek, eskola-kirola euskaraz egiteak dituen onurak gizarteratzeko sustapen lana osatu eta indartzeko konpromisoa hartzea.